



## AUZO BILERAK 2024

**AUZO:** Karrika

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2024/10/03	18:00	20:30

**BILDUTAKOAK:**

<b>Udal ordezkariak:</b>	Agustin Lekuona, Ion Albisu eta Ibintza Iragorri?		
<b>Herritarrak:</b>	Euskaraz: 21		Elebitan: 0
	Emakumezkoak: 7		Gizonezkoak: 14
	<30 urte: 2	31-50 urte: 10	51-65 urte: 7 >66 urte: 3

**AKTA:**

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Batzarrean landuko diren gaiak aurkeztu dira.
<b>Legealdi planaren jarraipena</b>	<p><b>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman da.</b></p> <p><b>Legealdi planaren jarraipena eta urteko helburu nagusiak aurkeztu dira:</b></p> <p><b>2024:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ongizate saila Fermiñenera lekualdatu da. Elkarlanerako erraztasun handiak ekarri ditu horrek. Erabiltzaileak eta herritarrak gustura daude kokapen berriarekin.</li><li>- Udaleko euskara plan berria idatzi da.</li><li>- Oiartzun irratitari bultzada bat eman zaio. Herrian gai horretan adituak diren zenbait pertsona elkartu dira horretarako.</li><li>- Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko programa abiatu da herriko ikastetxeetan. Gailu teknologien erabilera eginez herrira iritsi berriei harrera egiteko helburua du (guraso bileretan adibidez).</li><li>- Aurten lehen aldiz mugalderako udaleku ibiltariak antolatu dira. 30 bat gaztek parte hartu dute. Datorren urtean ere egiten jarraitzeko asmoa dago.</li><li>- Mugikortasun eta energia plana idatzi eta onartu dira.</li></ul>



- Lehen sektoreko doako ordezkapen zerbitzua martxan jarri da.
- Burujabetzen prozesua martxan jarri da. Aurten jardunaldiak antolatu dira Oiartzunen Udalbiltzarekin batera.
- Hirigintza aldetik plan ezberdinak daude martxan: Arraguan egingo diren 400 etxebizitzetako prozesu partehartzailea egin da. ELI6 eremuan ere 200 bat etxebizitza egingo dira. Horrekin lotuta, hirigintza ikuspegi feministatik
- Inbertsioetan. Futbol zelaia, bidegorriko azken tunela, Ugaldetxoko lotunea, Zurko baserriko bidezidorra eta Mendinekin ere. Bi lotura berri.

**2025:**

- Herritarren Arretarako gune berria martxan jarriko da. Lehen Sabadell-eko bankua zegoen lokalean egingo dituzte aurrerantzean herritarrek udalarekin lotutako gestioen gehiengoa.
- Mugikortasun plana eta energia plana (Rafael Pikabea...) gauzatzen hasiko dira.
- Atez atekoaren bilketa kudeaketan hobekuntzak egingo dira. Horretarako, Arraguan proba pilotu bat egingo da.
- Burujabetzen prozesuarekin jarraituko da. Mahaiak martxan jarriko dira jardunaldien ondoren.
- Hirigintza planak herritarrekin lantzen jarraituko dugu. Arragua, ELI6 eta Ugaldetxo.
- Musika eskola publikoa sortzeko parte-hartze prozesua egingo da. Aurten lanketa bat egin da.
- Liburutegia berritzeko parte hartze prozesuan lagundu. Eraikina berrantolatuko da, erakargarriago egin eta herritar guztien eskura jartzeko.
- Merkataritza txikia sustatzeko plana egingo da.
- Naturguneen azterketa egingo da, bioaniztasuna zaintzeko.
- Haur etorri berriek euskara ikasteko esperientzia pilotua martxan jarri nahi da. Hezkuntzarekin lantzen ari da gaia.
- Inbertsioak: Altzibarko gune estalia, ikasketa gela berria, energian, ur hoditerian, mugikortasunean...



<p><b>Ordenantza fiskalak eta aurrekontua</b></p>	<p><b>ORDENANTZA FISKALAK</b></p> <p>Ordenantza fiskalak hiru helburu izanik berritu dira:</p> <p>Errenten araberako ordenantzak, Klima aldaketaren aurkako neurriak saritu eta etxe hutsak merkaturatzeko hartu genitzakeen neurriak hartu.</p> <p>%2 igoera tasetan eta KPI-%3,4.</p> <p>Kohesio soziala zaintzeko, Aztikerrekin azterketa sozioekonomiko bat egin dugu Oiartzungo errealitatea ezagutzeko.</p> <p>Kohesio soziala. 3975 bizitza unitate Oiartzunen. Familia errentari dagokionez. 50 familia, adin txikiko batekin &lt;13.500€, 50 familia bi adin txikiko &lt;13.500-26.000€.</p> <p>&lt;13.500€ errenta duten bizikidetzak unitateentzat udako igerilekuetarako prezio murriztu bereziak egon dira.</p> <p>Trakzio mekanikoa familia ugari errentaren arabera.</p> <p>Gainerako herrietan bezala, Oiartzunen biztanleriaren zahartzea ikusten da. &gt;65, gorakoak 20 urteetan %8 igo da. Kiroldegian 65 gorakoak prezio murriztua izango dute, zahartze aktiboa bultzatzeko.</p> <p>Ekonomiarekin lotutako datuak: %75ak zerbitzuetan egiten du lan, industrian gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia. Nekazaritza eta abeltzaintzan gutxiengoak egiten du lan. Langabezia tasa % 5 inguru.</p> <p>Transizio ekosoziala (energia, mugikortasuna eta hondakinak). Legeak energia kontsumoak % 35 jatsi behar ditugula eskatzen du. 15 eraikin nagusiak kontsumoaren %85aren erantzule dira. Elorsoro kiroldegia da Udalaren energia kontsumoaren %37a. Energiaren %32 energia berriztagarrietatik etorri behar da. Udalaren zuzeneko kontsumoa jaisteko neurriak. Ekonomia sektoreetan eta etxebizitzetan energia eraginkortasuna bultzatzea. Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurriak. Klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egin: ibaiak, naturguneak, itzalak...</p> <p>Hobariak: Energia aprobeixamendu sistemak (eguzki panelak) jarriz gero %50eko hobaria izango da. Instalazioetan %95eko hobaria egongo</p>
---	--



da. A eta B energia-efizientzia lortzeko eraikuntza, instalazio edo obrak egin behar izanez gero, hobaria izango da, %95 eta %80 bitarte.

Mugikortasun planean (2024-2028), 5 ildo estrategikotan jasotako 35 ekintza jasotzen dira: Oiartzungo ardatz aktiboak, garraio publikoa, kotxearen kultura murriztea, jarduera ekonomikorako eremuetan eragite eta hirigintza eta mugikortasuna.

Mugikortasunarekin lotutako hobariak: etxebizitza komunitateetan bizikletak aparkatzeko gune berriak sortzeko obretan %95eko hobaria obren zergan. Interes publikoko obra izendatu beharko ditu plenoak. Trakzio mekanikoen zergako hobariak CO2 isurien arabera.

Hondakinak: 7/2022 legea dator Europatik eta 2030erako % 70eko birziklatze tasa izan beharko dugu. Oiartzunen gaur egun %78ko birziklatzeko tasa dugu atez atekoari esker. Bakoitzak sortzen duen hondakinaren arabera tasak ordaintzera bideratuta dago legea eta gu ere bide horretara lerratzen hasiko gara. Beste helburua defizit 0 filosofia da. Tasekin ordaindu beharko da hondakinen kudeaketa. Gaur egun, 1.000.000€ finantziatu behar du tasetatik. Orain arte %60 kubritzen zuen tasak eta Udalak gainerakoa ordaintzen zuen. Udalak gastu hori nola murriztu aztertuko du. Aurten, hala ere, hondakinen tasa garestitu egingo da. Ondorengoa izango da tasa: 4€/hilabetean, 56€/lauhileko eta urtean 168€. Gipuzkoako beste herrieekin konparatuz 5 merkeen artean gaude, bilketa sistema dena delakoa dela. Defizit 0-rako, 200€ inguruko tasa beharrezkoa izango da etorkizunean.

Etxebizitzak: gainkargua etxe hutsetan %100 izango da. Hobari berri bat %50eko hobaria izango da Bizigune edo ASAP programetan sartzen diren etxebizitzentzat.

#### **UDALEKO AURREKONTUA**

2025eko aurrekontua 20 milioi ingurukoa izango da.

Sarrerak: Nagusiki Foru Aldundiko funtsez osatua da. Zergak % 33a. %17a tasak



	<p>Gastuak: Pertsonal gastuak gastuen herena dira (%34), diru laguntzetan %18. Gastu arruntak eta zerbitzuak %36,4. Inbertsio errealetarako %10,2.</p>
<b>Auzoa</b>	<p>-Eskaerak</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Anbulategiko aparkalekua bezeroentzat bakarrik izatea.</b> Jartzea falta da.</li><li>• <b>Txakurrak lotuta eramateko arautegia betearazi beharra?</b> Albaitariarekin batera kontzientziazio kanpaina bat egin nahi da</li><li>• <b>Oialekuko pagoak ustelduta daude, arriskutsuak izan daitezke.</b></li><li>• <b>Altzibar Karrika errepidean asfalto frogak egin dira. Asfaltoa aldatzeko eskatzen da.</b> FArri eskaera egin zaio.</li><li>• <b>Artasotik 200 metrora Bianditzerako herri bidea arriskutsu dago</b></li><li>• <b>Bianditzeko herri bidean haritz handi bat dago lurra altxatzen ari da</b></li><li>• <b>Iragorri parean" Kontuz ganadua" dioen seinalea berriz jarri</b></li><li>• <b>Artasotik Plazara doan oinezko bidea eta arketa konpondu.</b> Mugikortasun planean jaso</li><li>• <b>Txakur kakak botatzeko zaborrontziak auzoan</b></li></ul> <p>-Egitekoak</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Mugikortasun plana:</b> Koexistentzia gunea izatea auzoa, oinezkoei lehentasuna emanaz eta abiadura moteltzeko seinalizazioa, hiri altzariak eta begetazioa erabiliz.</li><li>• <b>Txakurrak lotuta eramateko arautegia betearazi beharra?</b> Albaitariarekin batera kontzientziazio kanpaina bat egin nahi da</li><li>• <b>Altzibar Karrika errepidean asfalto frogak egin dira. Asfaltoa aldatzeko eskatzen da.</b> FArri eskaera egin zaio.</li><li>• <b>Artasotik 200 metrora Bianditzerako herri bidea arriskutsu dago</b></li><li>• <b>Iragorri parean" Kontuz ganadua" dioen seinalea berriz jarri</b></li><li>• <b>Artasotik Plazara doan oinezko bidea eta arketa konpondu.</b> Mugikortasun planean jaso</li><li>• <b>Txakur kakak botatzeko zaborrontziak auzoan</b></li></ul>



Aurtengo ekarpenak eskatu direnean Xorrolako bidearen garbiketak eraman du zatirik handiena, galdetu dute ea zergatik ez zegoen Karrikako lanen zerrendan, esan zaie hori ez dela aurreko urteko auzo eskaera bat, bide baten zati batzuen garbiketa baizik eta mendi garbiketak edo bide garbiketak orokor bezala aurkezten ditugulako, larre planeko garbiketak bezala.

Xorrolako bidearen gaiarekin komentatu ziguten ea zer egiteko asmoa zegoen, entzun zutela eta ikusi zutela idatzita medio batzuetan "Via verde" proiektu bat zegoela idatzita (zorua + argiteria + bertan obrak) eta ea zer zen hori, horren aurkezpena egitekoa zuela gure Alkate Joanak.

Esan zaie ez dagoela horrelako proiekturik idatzirik, eta medio horietan idatzita zegoena gezurra zela, Udaletxe aldetik garbiketa lanak egiten ari ginela Xorrolako bideko zati batzuetan alde batetik hor dagoen pista izateko udalarentzat irisgarriago eta herritarrentzat garbiago eta seguruago, beti egiten dugun bezala beste pista edo xerrendekin udal osoan, urteak ziren ez zela horrelako garbiketarik egin bide horretan eta orain aukera genuenez gure brigadarekin egiteko horrela egiten ari ginela.

Beste aldetik mugikortasunaren aldetik eta ondare aldetik Altzibarren lotura garbi bat nahi genuela Arditurrira doan bidegorriarekin (pasa gabe han dagoen etxeko ataiatik) eta Klareneko aparkaleku ondoan dagoen eraikina nolabait eraberritu izanez babes leku bat eta Artikutzako trenbidearen interpretazio zentrotxo bat argazki batzuekin, oraingo egoera eraikin horrena arriskutxo da eta zeozer egin beharra ikusten da Udaletik. Lan hauek egiteko inbertsioa behar dugu eta dirulaguntzarik gabe oraingoz ez dugu ikusten biderik eta hau bideratzeko ere proiektu bat idaztea tokatuko, eta horrelakorik ere oraindik ez dago. Esaten zaie gure Udal lan zerrendetan ez daukagula ikusita Xorrolako bideko tunela baten konponketa edo eroritako zubiren batean plataforma bat egitea, soilik eremu batzuen garbiketa, Altzibarko lotura bidegorriakin eta Klarene aparkalekuko ondoko eraikinaren eraberritzea, eta azken bi hauen proiekturik ere oraindik ez daukagu, oraingoz asmoa delarik.

Behin eta berriz aipatzen da ez dagoela inongo proiekturik idatzita, aipatzen da ere Xorrolako bidearen inguruan urteak daramatzatela Oiartzungo herritar



batzuek lanean eta hauen lana ere goraipatzekoa dela gure ondarea balioan jarri nahi dutela eta lanean aritzen direla bolondres gisa.

Hau aipatzerakoan talde horretako kide batek azaldu zuen zein lan egiten aritu diren denbora honen guztian eta bera ere ondare hori kontserbatzeko aldekoa zen eta bide horretan dauden gune interesgarrietan kartelak ere jartzea ezagutaraziz zer diren.

Honek berak ere aipatzen du eztabaidan Bianditzeko tunelaren konponketa kasuan diputazioak diru bat zeukala erabiltzeko eta azkenean tunela hori konpontzen erabili zutela bestela bera bertan galduko zelako eta ez beste asmorik gabe.

Bere aportazioa ere izan zen ikusirik batzuen haserrea kasualitate batzuk ere gertatu direla, batetik gure garbiketa lanak eta bestetik Europako ondasun patrimonialen jarduerak eta bertan emandako hitzaldiak tren bide honi buruz.

Udal aldetik aipatzen da Udalan ardura eta betebeharra dela ondarearen kontserbazioa, eta horretan gabiltzala, hau batzuen ustetan soilik masifikazioa ekarri dezakeela eta dagoen bezala uzteko eskatu ziguten, hau ere eztabaidatu zen, ikuspuntu desberdinak zeuden.

Beste gaiei helduz kexa ziren azken 5 urtetan asko ugaritu dela jendea Karrikan bueltan, bizikleta asko eta azkar, mendizaleak, udaran erreka, kotxeak eta hauen azkartasuna eta zakurrak aske. Urtero errepikatzen diren kexak, honetaz ere hitz egiten da eta beti bezala errespetu kontua dela eta ez dela ezer errespetatzen.

Galdetu zuten sarrerako parkinaz ea zer asmo zeukan Udalak eta erantzun zen Udalaren asmoa bereganatzea dela jarraitzeko izaten parkina, honek auzoari hauspoa ematen diolako edozertarako, darama udalak urte batzuk hor alokatzen eta erosteko saiakera egingo da.



	<p>Eskatzen dira ganadu seinaleak jartzeko bide bazter batzuetan.</p> <p>Eskatzen dute Oialeku bidean seinaletika T jartzea furgonetak hortik ez igotzeko Kauso aldera.</p> <p>Eskatzen dute komun publiko bat, jende asko ibiltzen da eta frontoi atzera jotzen dira dena zikina utziz.</p> <p>Eskatzen dute frontoia eta dema gunea estaltzeko horrela gunea estali bat izateko Karrikan.</p> <p>Eskatzen dute ura departamenduri eskatzeko erreka ondoan duden ikuskaritza egin eta arriskuan dauden arbolak mozteko, uholde arriskua ikusten delako.</p> <p>Momentu batean ere aipatzen da Penaiko aztertzeke izan dadin energia sortzeko aukera udalean.</p>
--	---

#### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
bilera ongi gidatu da	8
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8
Auzotar kopurua	7
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8
Saioa probetxugarria izan al da?	9
Egunaren egokitasuna	9
Orduaren egokitasuna	8
Lekuaren egokitasuna	8